



Lehiaketa honen xedea da bezeroek eta, oro har, nahi duten guztiek Euskotrenen unitate berriei izena emateko lehiaketan parte hartzea, horretarako sortu den microsite baten bitartez (www.lanuevacaradeeuskotren.es eta www.euskotrenenitxuraberria.es).

1. Lehiaketaren antolatzailea

EUSKO TRENBIDEAK - FERROCARRILES VASCOS, S.A (EUSKO TREN).
Helbidea: Atxuri kalea 6, 48006 Bilbo. IFK: A-48136550. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago BI-74 tomoan, 76 folioan, BI- 3.159-A orrian, 61. inskripzioan.

2. Lehiaketaren mekanika

Lehiaketan edonork parte hartu dezake.

14 urtetik beherako haurrek ere, beren legezko ordezkarien idatzizko onarpena edukiz gero, parte har dezakete.

EZ dute parte hartzeko aukerarik izango Euskotreneko langileek edo horien seme-alabek.

Lehiaketaren antolatzaileek eskubidea izango dute parte-hartzaileak lehiaketaz kanpo uzteko, baldin eta beren nortasunari buruzko datu faltsuak bidaltzen badituzte (izena, helbidea, e-maila eta abar).

Fitxan dagozkion datuak sartu ondoren, lehiakideak aukeratutako izena idatziko da micrositean. Fitxa bakoitzeko izen bat bakarrik onartuko da.

3. Izenen baldintzak

Trenen izenek hitz bakarra izan dezakete. Ez dira onartuko adierazpen edo hitz sexistak, arrazistak edo gizartearen sentikortasuna mindu dezaketenak.

4. Hizkuntza

Gazteleraz nahiz euskaraz sortutako izenak onartuko dira.

5. Izen irabazleak

Lehiakideek proposatutako izen guztien artean, tren berrien balio eta ezaugarriekin bat datorrena aukeratuko du Euskotrenek.

Aurrez aukeratutako izenak inskribagarria izan behar du Industria Jabetzaren Erregistroan —edo dagokionean— marka edo izen komertzial gisa.

Beraz, proposatutako izenaren egilea irabazle izendatu aurretik, marka edo izen komertzial gisa inskribatu daitekeela eta proposatutako izena Industria Jabetza Erregistroan —edo Jabetza Intelektualaren Erregistroan— jada babestuta ez dagoela egiaztatuko da, marka edo izen komertzial gisa, edo beste moduren batera.

Aurrez aukeratutako izena Industria Jabetza Erregistroan jada babestuta eta inskribatuta baldin badago, aurrez aukeratutako bigarren izena egiaztatuko da, eta horrela, hurrenez hurren.

6. Saria

4 eguneko bidaia Parisera lau lagunentzat. Horren barruan sartzen da: TGVn 1. klasean bidaiatzea (Hendaia-Paris-Hendaia). 4 izarreko hotela (ostatua eta gosaria), oraindik zehazteko. Joan-etorriak Parisen, iristeko nahiz itzultzeko.

7. Irabazlea ezagutaraztea

5. puntuan aipatutako prozesua amaitu ondoren, irabazlearen izen-abizenak eta aipatutako web orrietan proposatutako izena argitaratuko dira. Gero, e-mail bidez, irabazle izan dela adieraziko zaio, eta saria emateko baldintzak ere jakinaraziko zaizkio.

Oinarri hauetan zehaztutako baldintza guztiak betetzen ez badira, irabazleari ez zaio saria emango. Saria eman gabe geratuko da, eta horrenbestez, Euskotreni ezin izango zaio, inolaz ere, erreklamaziorik egin.

Parte-hartzaileen eta irabazlearen identitatea agiri ofizialen bidez egiaztatuko da (NAN, pasaportea, familia-liburua edo beste identifikazio-agiri batzuk).

8. Eskubideak

Automatikoki, trenaren izena ustiatzeko eskubide guztiak Euskotrenen esku bakarrik geratuko dira mugagabeki. Lehiaketaren irabazleak ez du proposatutako izenari



dagokionez eskubiderik izango —ez unean bertan eta ez etorkizunean ere—, eta beraz, irabazleak nahiz legezko ordezkariak, inolako kontraprestaziorik gabe, dagokion agiria eman beharko dio Euskotreni edozein erakunde edo Erregistroren aurrean egintza hori gauzatu dela agertu behar duen unean.

9. Lehiaketaren hasierako eta amaierako datak

2010eko apirilaren 30ean hasi eta 2011ko martxoaren 6an amaituko da.

10. Oinarriak onartzea

Lehiaketan parte hartu izanak oinarri guztiak ezagutzen eta onartzen direla esan nahi du. Oinarrietan adierazten diren baldintza guztiak betetzen ez dituzten parte-hartzaileek ez dute inolako eskubiderik izango. Euskotreni emandako datuak okerrak izaki, irabazlearekin harremanetan jartzerik ez badago, Euskotrenek ez du saria emateko obligaziorik izango.

11. Datuak Babesteko Legea

Lehiaketa honetako datu pertsonal guztiak Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak babesten ditu.

Prozesu honetan bildu diren datu pertsonal guztiak ezabatu egingo dira lehiaketa amaitzean.